



xa **sencillemente**
transformar la realidad



www.mensajesenredados.com

2018ko maiatza

Begirada soziala Eskolapioen Bilboko kristinau alkartetik

GAZTE MIGRATZAILEAK

Oraina amestuz, geroa biziz.

Azken urteotan gora egin dau gazte migratzaileen kopuruak. Hori dala-eta, gure inguruan izan doguz eta hainbat kasutan arpegia, izena... jarri ahal izan deutsegu, euren historia ezagutu...

Migrazioaren eta gazte migratzaileen inguruan, seguruenik hainbat "ZURRUMURRU" edo euren inguruko askotariko estereotipo negatibo entzun dogu: "Dei-efektua", "lapurtzera eta guri lana kentzera datozala", edo "gizarte laguntzak aprobetxatzen etorten dirala"... Gure inguruan gazte migratzaileen kopuruak gora egiten dihardu gazte honeek hemen, bizitzen jarteko eta prozesu migratorioa burutzeko lekua aurkitzen dabelako, lana aurkitzeko eta bizimodu hobea lortzeko itxaropenagaz.

Prozesu honetan, era askotako eragozpen eta traba izaten dabe eta horrek luzatu, zaildu eta hainbat kasutan zapuztu egiten ditu gazte bakotzak egiten dituan ahalegin guztiak. Era gozpen gehienek erakunde publikoetan dabe sorburua eta askok eta askok baita gizartean bertan be.



Gazteen gizarteratze eta laneratzea lortzeko ideala abiapuntutzat hartuta, personaren alderdi guztietan osoko esku hartzea izan beharko dogu, Euskadira heldu eta lehenengo une horreetan inongo erreferenterik ez daukien gazteak dirala ahaztu barik.

Aurrerago esan danez, garrantzitsua da azpimarratzea, euren prozesu migratzailean, gazte honeek, lehenago ala beranduago, Euskadin bizitzen geratzea erabagi dabela; ondorioz, aintzakotzat hartu beharko geunke, gure gizarteko gainerako gazteak lez eta, gainera, euren beharrianei eta eskubideei erantzun egin behar-

ko geunskie, bizi diren gizarteagazko daukiezan betebeharrak be ahaztu barik.

Aitatutako gazte horreen bizitzako era bateko eta beste eremuetan jarduten daben Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeak gizatalde honen benetako integrazioa ahalbideratuko dauan kalidadezko eta osoko lana egitearen aldekoak dira.

Ondorengo honeek litzatekez aurkitzen doguzan era gozpen eta zailtasunik nabarmenenak:

- Adin txikikoak diran bitartean erakunde publikoen harrera dabe, baina, 18 urte beteten dabezanean, era bateko eta beste bitartekoak itzi egin behar dabez eta, ondorioz, kalea bihurtzen da euren bizileku, euren beharrianak, urtaroa... edozein izanda be.
- Oztopoak egoera administratiboa arautzeko edo agiriak barritzeko.
- Oztopoak prestakuntza jasoteko.
- Oztopoak osasun zerbitzuak jadesteko eta osasun arretan bertan. Buruko gaixotasun inguruko egitarauak jadesteko zailtasunak.
- Erroldatzeko eta etxebizitza jadesteko oztopoak.
- Euren oinarrizko beharrianei (etxebizitza, elikadura...) aurre egiteko gizarte laguntzak jadesteko zailtasuna.
- Bazterketa aisialdirako lekuetara sartzerakoan eta integratzeari begira bardinen talderen bateko kide izateko.
- Prestakuntzarako, egoitza izateko... bitartekorik ez izatea.

Guzti horri, gizarteak, inguruabarrek, gero eta estuago hartzen dabezala gehitu behar jako, izan be, aldizka, prozesuak desequin edo korapilatu egiten dira euren ibilbide pertsonaletako eremu batzuetan aurrerapenen bat izan daikien gazte bakarrentzat.



Benetako istorioak

Dana dala, gazte honeek benetako istorioetan, hobetzeko eta integratzeko egundoko ahalegina islatzen da eta, alde horretatik, guztiz eredugarriak dira:

- Epe ertainean (2-4 urte), etxebizitza, prestakuntza, ikaskuntza, hizkuntza... kezka nagusi izan diran aldian, laguntasuna jaso ondoren, gazte migratzaile gehienak lanean hasten dira eta euren lanpostuetan egiten daben lana oso ondo baloratua izaten da.
- Apurka-apurka, gero eta ohikoagoa egiten jaku bizitzako hainbat eremutan gazte honeekaz bat egitea. Euren istorioak, euren bizitzak, geure egiten doguz eta aurretik sinisten genduzan estereotipoak desgertuz doaz.
- Gazte honeen arteko asko ikusten dogu boluntario lez jarduten hasiera batean eurei lagundu eutsien erakundeetan (gatzelania irakatsi, aterpetxeetan lagundu, gazte etorri barriei lagundu, alkartasun-kanpainetan parte hartu...).

Hausnarketarako:

1. Jabetzen ete naz gazteek aurkitzen dabezan zailtasunez eta gizarteratzeko egindako aha-leginez?
2. Zer egin beharko neuke gure inguruan (alkar-tea, taldea, adiskideak, familia...) harrera egiten jakela sentitu daien?
3. Benetan, hurreratu ete naz eurengana? Aurrrerantzean, zer egiteko prest nago?



Ekintzak:

- Parte hartu egoera honeek salatzeko ekimenetan (zeure gertuko inguruan, gizarte mailan...)
- Zurrumurruren aurkako eragile bihurtu <http://zurrumurrurikez.eus/>
- Boluntario lez jardun gazteei zuzendutako egitarauetan (eskola-laguntasuna, gatzelania eta euskararen ikaskuntza, aisia eta aisialdia, laguntza pisuetan, 'Anaia nagusia'...)
- Gazteen taldera hurreratu eta zeure gizarte inguruan integratu.



Esteka interesgarriak:

- 'Cristianisme i justicia' liburuxkak – "Menores Extrajeros no acompañados".- <https://www.cristianismeijusticia.net/sites/default/files/pdf/papes242.pdf>
- 'Harresiak info' 17. zenb.- "Esfuerzos humanos ante muros de acero" artikulua.- <http://www.harresiakapurtuz.org/wp-content/uploads/2016/04/HarresiakInfo17-1.pdf>
- "El viaje de Said".- <http://educacionysolidaridad.blogspot.com.es/2011/03/cine-educativo-el-viaje-de-said-corto.html>
- Alkarrizketa 'AUKERA' egitarauaren erabiltzaile biri 'BERRIA' egunkarian .- https://www.berria.eus/paperekoa/1736/006/001/2017-07-26/burokraziaren_gurpil_zoroan.htm
- "Arrazakeriaren aurkako eta migratzaile eta errefuxiatuen eskubideen aldeko itxialdia" agiria.- <https://racismenstanca.wordpress.com/manifiesto/> y <https://racismenstanca.wordpress.com/2018/04/28/elracismenstanca/>